

1. erreminta. **Irakasleak.**

MARKO KONTZEPTUALAK KONPARTITZEN

A) Ondoko esaldi guztiak lasai irakurri eta zure adostasun maila adierazi 1etik (guztiz kontra) 4ra (guztiz ados).

Emakumea

Gizona

BAIEZTAPENAK	KONTRA	ADOS
1. Elkarbizitza berez ez da helburua, irakatsi eta ikasi egiten dela bermatzeko bide baizik.	1	2 3 4
2. Ikastetxearen antolakuntza, ikasgaien programazioak, metodologia harreman motak... gatazka desberdinak sortarazi ditzakete. Beraz, ez dugu pentsatu behar gatazka guztien kausa ikasleen edo irakasleen arazo pertsonalak direnik.	1	2 3 4
3. Gure pentsamenduek gure emozioak eta sentimenduak baldintzatzen dituzte eta horiek gure jokabidea markatzen dute. Hortaz, pentsamendu, sentimendu eta jardueraren arteko koherentzia funtsezkoa da norberaren nahiz ikastetxearen ongizaterako.	1	2 3 4
4. Ikastetxeko elkarbizitzan irakasleek euren lanari buruzko hausnarketa egiteko duten gaitasunak eragina du. Baita ikasleei interes-, gogo-, emozio-, sentimendu- eta ideiak adierazten lagunduko dieten metodologia berriekin esperimintatzeko dituzten gaitasunak ere.	1	2 3 4
5. Diziplina arazo guztiak, arautegi on batekin konpontzen dira.	1	2 3 4
6. Ikastetxeetan etengabe elkarbizitzari buruzko kezak izaten dira, baina ia inork ez dio gaiari behar bezala heltzen elkarbizitza kudeatzeko programa bat eginez.	1	2 3 4
7. Batzuetan, ikasleekin izaten ditugun gatazkak edo ikasleen artekoak, egoera pertsonalen ondorio izaten dira. Izan ere, sentitzen duten segurtasun falta, arreta edo afektu beharrari erantzun bat bilatzeko modu bat dira.	1	2 3 4
8. Ikastetxeko estamentu guztiek, eta batez ere ikasleek, benetan parte hartzeko bideak izateak, batetik, pertenezia sentimendua sustatzen du, eta, bestetik, eskolako giroa eta elkarbizitza hobetzen laguntzen du.	1	2 3 4
9. Elkarbizitza positiboak, guztion artean (ikasleak, irakasleak, gurasoak eta administrazioko eta zerbitzuetako pertsonala) arau argi batzuk adostea eskatzen du. Autonomia, erantzukizuna eta hezkuntza-komunitatekideen aldaketarako eta hobetzeko gaitasuna sustatzen duten arauak.	1	2 3 4
10. Ondo ordenatuta dagoen gelan (edo ikastetxean), norberak garbi baldin badu zer egin behar duen eta nola, zer espero duten besteek berarengandik, normalki, ez da elkarbizitza arazorik izaten.	1	2 3 4
11. Aisialdirako espazioak, jantokiak, pasabideak, autobusak.. autoerregulatu egiten dira eta bertan ez da aldaketarik egin behar, ez baitute ikasketaren garapenean eraginik.	1	2 3 4
12. Indarkeria ikasi egiten da eta desikasi ere egin daiteke.	1	2 3 4
13. Elkarbizitza Plan on batean, gatazkak konpontzeko metodologia-proposamenak egiteko unean lehentasuna eman beharko zaie gatazkaren protagonistek dituzten emozioei eta elkarrizketarikausak; arrazoiak zeintzuk diren aztertu behar da.	1	2 3 4
14. ...		

Urteko Elkarbizitza Plana eratzeko Gida (UEP)

.....

B) Galdesorta bukatu eta gero, oinarritzotzat jotzen dituzun hiru gai aukeratu. Azpimarratu nahi duzun ideia era positiboan eta guztiz argi gera dadin, esaldiak berriatzi.

1.

2.

3.

Komentarioak eta oharrak: